

LAN HITZARMENEN MAHAIAREN LABURPENA

Atzo, abenduaren 19an, Kristau Eskolak deituta lan hitzarmenaren negoziazio mahaia bildu zen. Bertan, Kristau Eskolak Epaitegi Gorenaren epaiaz, aparteko pagaz eta lan hitzarmenaz bere iritzia argitu zuen. Besteak beste, adierazi zuen gaitzesten duela Epaitegi Gorenak emandako sententzia, baliogaberik ustea eskatu duela (egun honetan hain zuzen), eta ez duela, oraingoz, sententzia beteko asmorik. Aparteko paga dela eta, argitu zuen bere ikastetxeek ez dutela ordainduko ordainketa eskuordetuaren kasuan zer gertatzen den argitu arte eta gobernuari eskatu diola hartzen duen erabakia behin betikoa izan dadin. Sektoreko lan hitzarmenaren alde agertu zen eta prest dago sinatzeko 2010, 2011 eta 2012 lan sarien taula baldin eta kobratu duguna jasotzen duten, murriztuak alegia. Halaber, prest agertu zen finantziarioa itunetako langileei dagokien zatian handituz gero, hazkuntza hau automatikoki langileen soldadari eragiteko. Aldi berean, adierazi zuen murriztutako diru kantitean ordaintzen ari diren ikastetxeak lan hitzarmenaren esparrutik at geratu beharko liratekela.

Testuinguru honetan, dei egin zigun sindikatuei bide-orri bat adosteko eta Eusko Jaurlaritzara elkarrekin jo dezagun diru murrizketak ikastetxeentzako sortu duen arazoari konponbidea eskatzeko.

Kristau Eskolak esandakoa entzun ondoren, sindikatuek denbora eskatu genuen proposamena sakon aztertzeko eta erantzuna emateko. Datorren urtarrilaren 25ean bilduko da berriro negoziazio mahaia.

Hasierako balorazio modura, STEE-EILASek bere etsipena plazaratzen du Kristau Eskolak epaia ez betetzea erabaki duelako eta, beraz, bere langileen diru atzerapenak ez delako ordaintzen ari ezta nominak eguneratzen ere. STEE-EILAS sindikatuak bere poza adierazi nahi du AIC eta Elizbarrutiko Zentroak patronal erakundeetako ikastetxeek, salbuespenak salbuespen, epaia betetzen ari direlako; 2010ko irailatik bere langileekin dauzkaten diru-zorrik kitatu eta nominak eguneratzen ari direlako, alegia. Gure ustetan, argi geratu da epaia betetzeak ez dakarrela ikastetxeen baliogarrtasun ekonomikoa arriskuan jartzea eta ez dituela ixtera behartzen. Halaber, positiboa deritza lehenengo kantitate-erreklamazioak (ikastolei dagozkienak orain arte) izandako epaiak irabazteari, eta enpresak legea betetzera behartzen dituztenak.

STEE-EILASek bere harridura ere adierazi nahi du Kristau Eskola langileen eskubideen alde agertzen delako eta, aldi berean, justizia epaitegiek errekonozitutako eskubideen aurka aldebakarreko erabakiak hartzen dituelako.

STEE-EILASek animatu egiten ditu itunpeko irakaskuntzako langileak dauzkaten baliabide guztiekin euren eskubideen alde egiten jarrai dezaten, haiek era eraginkorrean bete daitezen.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Descalzos, 72 (Iorja) 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org